

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **IKTak eta Konpetentzia Digitalak**

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen  
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

---

### **DBH 4ko ikasleen testu laburpenak deskribatzen, IKT-ak erabiliz**

---

Egilea: Idoia Garin Garde

Tutorea: Mikel Irukieta



**2017**

---

# Laburpena

---

Ikerketa lan honen helburua DBH 4-ko ikasle talde batek egindako testu laburpenak deskribatzea da. Hau da, testuaren ideiarik nagusienak jasotzen dituzten, progresio tematikoa zaintzen duten, ideien arteko koherentzia erlazioa mantentzen duten, ideien arteko kohesioa zaintzen duten...

Ikasleek egindako laburpenak ez dira modu intuitiboan gauzatutakoak izango, aitzitik, laburpen automatikoak egiteko programa bat erabilia egingo dituzte, [compress.eus](http://compress.eus), hain zuzen ere. Programa horri esker, ikasle bakoitzeko bi laburpen mota lortuko ditugu, bata estrakzioz egindakoa; bestea, berriz, abstrakzioz. Deskribapena, beraz, bi testuak hartuta eta bien arteko alderaketa edo batetik besterako garapena kontuan hartuta egingo dugu. Horrez gain, deskribapenerako oinarri bat izate aldera, jatorrizko testu bereko irakaslearen laburpena eredu moduan erabiliko dugu.

Eskuzko ikerketa lanaz gain, [compress.eus](http://compress.eus) eta irakaslearen laburpen testuaren RST-a baliagarriak izango zaizkigu emaitzak lortzeko. Emaitza horiek aztertutakoan, laburpen testuen deskribapenean IKT-ak baliagarri diren ala ez ondorioztatzen saiatuko gara.

---

# Gaien aurkibideak

---

Laburpena1

Gaien aurkibideak2

Irudien aurkibidea3

Sarrera4

Proiektuaren helburuak66

Proiektuaren garapena77

Ondorioak3131

Bibliografia3333

---

# Irudien aurkibidea

---

## Taulak

1. taula .....	14
2. taula .....	17
3. taula .....	20
4. taula .....	21
5. taula .....	22
6. taula .....	24
7. taula .....	25
8. taula .....	26
9. taula .....	29

## Irudiak

1. irudia .....	18
2. irudia .....	28

# 1.KAPITULUA

---

## Sarrera

---

Bigarren Hezkuntzako oinarrizko zehar-konpetentzia dugu hitzeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia, eta horien osagai guztiak lantzeko laguntza erabakigarria ematen dute hizkuntza irakasgaiek. Izan ere, hizkuntzak ikastearen helburu nagusia da denetariko testuak, etapa bakoitzaren komunikazio-egoera berezkoei dagozkienak, ulertu eta sortzeko gaitasuna garatzea, eta testu horiek koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak izatea.

DBH 4. mailako edukien artean ditugu: hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak ulertzea eta interpretatzea; informazioa egituratu, planifikatu, testu bihurtu eta berrikustea komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatuta, teknika eta tresna digitalak modu autonomoan erabiltzea, idatzizko testuak ulertu, sortu, zuzendu eta zabaltzeko; idatzizko testuak hobetze aldera, autoebaluazio nahiz koebaluazio estrategiak erabiltzea, modu autonomo eta eraginkorrean; idazketa informazio eta ikaskuntza iturritzat edo estrategiatzat hartzea. Hori guztia kontuan izanda, garrantzitsutzat jotzen dugu ikasleek testu laburpenak egiten trebatzea. Ikasteko estrategia bikaina baita, gainera, arlo guztietarako baliagarri izango zaiena.

Ikasleak testuen ulermena lantzeko hainbat ariketa mota egiten ohituak dira DBH 4. mailarako: izenburua irakurrita hipotesiak egin, irakurri ahala hitz ezezagunak hiztegietan (paperezkoak zein online hiztegiak) bilatu, irakurritakoan ideia nagusia bilatu, testuari buruzko galderei erantzun... Baina laburpen testuak egitean, sarritan, hutsunea ageri da, ez dira kontuan hartzen testuaren koherentzia (diskurtso-erlazioak) eta ideien konexioa. Ikerketa lan honen helburua, beraz, horretan zentratuko da; hau da, ikasleek egindako laburpenak deskribatuko dira, konexioa, koherentzia eta ulergarritasuna oinarri hartuta.

Hizkuntzen irakaskuntzan bezalaxe, laburpen testuen deskribapenean ere teknologia berriek zer nolako ekarpena egin diezaguketzen aztertu nahi dugu. Izan ere, laburpen automatikoak egiteko tresnak badaude, baina laguntza paregabea litzateke

bai irakasle bai ikasleentzat, euskarazko laburpen testu zein edozein motatako testuen ideien arteko koherentzia eta kohesioa aztertuko lukeen tresna izatea.

## 2.KAPITULUA

---

### Proiektuaren helburuak

---

Ikerketa lan honen helburu nagusia DBH 4-ko ikasleen testu laburpenak deskribatzea da. Zehatzago esanda:

- DBH 4-ko ikasleek estrakzioz egindako laburpenen luzera aztertzea, eta horren arabera, ondoriorik atera daitekeen ikustea.
- Estrakziozko laburpenetan testuaren zein diskurtso-unitate aukeratzen duten ikustea, laburpenerako ezinbestekoak direnak aukeratzen dituzten ala ez ikustea.
- Aukeratutako diskurtso-unitateak urre-patroiarekin bat datozen aztertzea.
- Estrakzioz ikasleek aukeratutako diskurtso-unitate horien artean erlazio koherentziarik dagoen aztertzea.
- Behin diskurtso-unitateak aukeratuta, testu laburpen koherente eta kohesionatua sortzeko gai diren deskribatzea.
- Estrakzioz egindako laburpenak eta abstrakziozkoak alderatzea.
- Compress.eus programari esker lortutako datuek laburpenen egokitasuna adierazten duten frogatzea.
- Abstrakziozko laburpenei dagokienez, irakasleak eskuz egindako ebaluazioa eta compress.eus programak emandako datuak bat datozen frogatzea, ebaluaziorako baliagarri izan daitekeen ikusteko.
- Urre patroiairen RST-a ikasleen testuetako diskurtso-unitateen arteko koherentzia erlazioa aztertzeko lagungarria den ikustea.

## Proiektuaren garapena

---

### 3.1. Marko teorikoa

#### 3.1.1. Testuen laburpena.

Hizkuntza aztertzeko hartu izan den unitatea esaldia da, baina ulermenaren psikologiari dagokionez, esaldia unitate txikiagoetan banatzen da: proposizioetan. Proposizioak esanahi abstraktua duten oinarrizko unitateak dira, eta testua esan daiteke elkarren arteko lotura duten proposizioez osatzen dela. Testuaren azaleko eta sakoneko egitura bereizten lehena Chomsky izan zen, Van Dijk-ek mikroegitura eta makroegitura deitu zien, hau da, testua osatzen duten esaldien azpian dauden proposizio guziek mikroegitura osatzen dute; makroegitura, berriz, “*testuaren esanahiaren egitura orokorraren irudikapen abstraktua*” (Van Dijk) da.

Testu bat laburtzea esan dezakegu testu horren mikroegituratik makroegiturara pasatzea dela, baina horretarako makroerregela batzuei jarraitu behar zaie, bi egituren arteko koherentzia eta kohesioa ziurtatzeko. Van Dijk-ek lau motatako makroerregela bereizten ditu:

- Omisio erregela: testua orokorrean ulertzeko ezinbestekoa ez den informazioa ezabatzeari deritzo, garrantzirik ez duen informazioa ezabatzeari.
- Hautapen erregela: honen bitartez ere informazioa ezabatzen da, baina ezabatzen den informazio hori inplizituki ageri da beste informazio batean.
- Orokortze erregela: proposizio multzo bat beste proposizio orokorrago batez ordezkatzean datza, hau da, makroproposizio horrek beste mikroproposizio guztiak biltzen ditu, baina zehazki ez dakigu zein mikroproposizio diren.



- Eraikitze edo integrazio erregela: aurrekoaren antzekoa da, baina eraikitze erregelaren kasuan, ordezkatzeko duen proposizioak logikoki eta semantikoki biltzen ditu testuko mikroproposizioak.

Gure ikerlan honetako corpus-a osatzen duten testuetan, ikasleek estrakziozko laburpenak egiteko omisio erregela erabili dute, hau da, jatorrizko testua EDU-etan banatuta izanik, horietatik zein ez den beharrezkoa aukeratu dute, eta ezabatu. Ondoren, abstrakziozko laburpenak egiterakoan, hautapen erregela zein orokortze erregela erabili ahal izan dute.

### **3.1.1.1. Testuaren egitura hierarkikoa**

Kintsch-ek oinarritzko testuak (makroegiturak) egitura hierarkikoa duela esan zuen. Proposizio baten kokapenak eragina du irakurritakoa gogoratzeko orduan, maila gorenetakoa proposizioak maila apalagoetakoak baino hobeto gogoratzen direla frogatu zuen. Gainera, giza oroimena ez da gai informazio osoa prozesatzeko, beraz, informazioa murriztu egiten du eta testuaren koherentzia orokorra mantentzeko xehetasunak gordetzen ditu.

Laburpen testuen deskribapena egiteko, ikasleen laburpenek urre-patroiaren egitura hierarkikoa mantentzen duten ala ez begiratuko dugu. Izan ere, diskurtso-unitate batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa dute, testuaren egilearen komunikazio asmoa kontuan izanik.

### **3.1.2. IKT-en erabilera laburpen-testuen deskribapenean.**

#### **3.1.2.1. Testuen laburpen automatikoa.**

Testuen laburpen automatikoaren gaia aztertzeari ekin diote azken urteetan. Ikerketa horietan, bi alderdi bereizi behar dira: batetik, estrakzio bidezko laburpenak eta, bestetik, abstrakzio bidezko laburpenak. Lehenengo kasuan, testuko esaldiak ezabatzen dira, baina ez da inolako aldaketarik egiten horietan; bigarren kasuan, berriz, jatorrizko testua oinarri hartuta, horren laburpena ematen saiatzen dira, baina ez dira ezinbestean jatorrizko testuko esaldiak bere horretan agertzen. Jakina, abstrakziozko laburpenak egiteak dakartzan zailtasunak kontuan izanik, ez da harrizkoa estrakziozko laburpenen lanetan gehiago aurreratu izana.

IXA taldeak abian jarri duen abstrakziozko laburpenak egiteko tresnak (compress.eus), hasteko, estrakziozko laburpen automatikoak egiteko, jatorrizko testua oinarritzko diskurtso-unitatetan (EDU) banatzen du. Diskurtso-unitatea aditza duen perpaus adjuntuari deritza. Programari esker, laburtu nahi dugun dokumentuko

diskurtso-unitate guztiak jatorrizko testuaren paragrafoen arabera sailkatzen ditu. Aldi berean, EDU-z osatutako testua eta konprimituko dugun testua ikusiko ditugu pantailan. Horrela, laburpenerako beharrezkoak ez diren diskurtso-unitateak aukeratu ahala, konprimitutako testuan desagertzen joango dira.

Programa honek, estrakziozko laburpenak ez ezik, abstrakziozkoak egiteko aukera ere ematen digu. Behin beharrezkotzat jotzen ez ditugun diskurtso-unitate guztiak ezabatuta, konprimitutako testuan abstrakziozko laburpena egiteko erabiliko ditugun diskurtso-unitateak agertuko zaizkigu. Horiek zuzentzeko eta editatzeko aukera ematen digu, azkenik, gure abstrakziozko laburpena egin ahal izateko.

Lan honen helburua DBH 4-ko ikasleen eta irakaslearen laburpen testuek osatutako corpus-a deskribatzea da. Horretarako ere oso baliagarria izan zaigu [compress.eus](http://compress.eus) programa eta IXA taldeak eta talde teknikoak eskainitako datu bilketa. Izan ere, behin laburpen guztiak programaren bitartez eginda, estrakziozko laburpenen hainbat datu eskuragarri jarri baitizkigu, hala nola, kendutako UZ-ak, kendutako EDU-ak, kendutako hitz kopurua...

### **3.1.2.2. Koherentziazko erlazioak.**

Laburpen testu baten koherentziazko erlazioak deskribatzeko oso erabilgarria da RST-a (*Rhetorical Structure Theory*), hainbat hizkuntzako erlazio-egitura deskribatu ditu. Erlazio egitura esaten diogu testuan koherentzia-erlazio guztiek osatzen duten egiturari.

Testu baten diskurtso-unitate guztiek ez dute garrantzi bera, testuaren mezua komunikatzeko diskurtso-unitate batzuk egilearentzat ezinbestekoak dira, beste batzuk, aldiz, bigarren mailakoak. RST-k desberdindu egiten ditu erlazio-egituran, garrantzi handiko unitateak (nukleo) eta gutxiko unitateak (satelite). Unitate bat nukleo edo satellite izatea ebazteari nukleartasuna deritzo. Nukleartasunak erlazio-egitura deskribatzean hierarkia ezartzen dio zuhaitz itxurako egiturari. Horrela, horien arteko erlazioak ere deskribatzen ditu: nukleo-nukleo modukoak eta nukleo-satelite modukoak.

*Euskal RST TreeBank*-a sortu dute (Iruskieta et al. 2013) eta informazio ugari dago bertan eskuragarri, RST-ko bibliografiako beste lanetan baino kontsulta-zerbitzu osoagoa eskaintzen dute; gainera, beste hizkuntzetarako ere baliagarri dela frogatu dute.

### 3.2. Marko metodologikoa.

DBH 4-ko ikasleen laburpenak deskribatzeko marko teorikoa azalduta, ikerketa lan hau egiteko metodologiari helduko gaitzaizkio orain. Honako atal hauek izango ditu:

1. Corpus-a osatzea.
2. Estrakziozko laburpenak.
3. Abstrakziozko laburpen testuen ebaluazioa.
4. Corpus-etik ateratako datuak.
5. Erlaziozko diskurtso egitura.

#### 1. Corpus-a osatzea

Gure corpus-a hiru ataletan banatzen da: jatorrizko testua, irakaslearen laburpena (urre-patroia) eta ikasleen laburpenak.

**Jatorrizko testua:** DBH 4. mailarako egokitutako testua da, eta motari dagokionez, argudio testua, ikasleen testu liburutik ateratako “Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak”, argia.com (moldatua), Ulermena, Euskara eta Literatura DBH 4, ikaslearen materiala, Ibaizabal, hain zuzen ere. Argudio testuak lantzen ibili dira ikasturtean zehar. Lexiko aldetik, zailtasun gutxiko testua, hau da, ikasleentzako ulergarria. Hona hemen testua, paragrafoak zehaztua, ondorengo azalpenak ulertzeko baliagarri izango zaiguna:

#### (1. paragrafoa)

#### Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak

#### (2. paragrafoa)

**Europar Batasuneko AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu, edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara. Zenbaki eskandalagarri hauek saihets daitezke, ordea: legedia zorrotzuz, jakien iraupena luzatzeko neurriak hartuz, hornitzaile eta saltokien jardunean garrantzitsua eskatuz... eta kontsumitzaileon ohitura txarrak alboratuz.**

#### (3. paragrafoa)

MIKEL GARCIA IDIAKEZ/ 2012-02-19

Ez dago zulotxorik duen patatarik supermerkatuetan, ez dago fruitu eta barazki

“itsusirik”, sagar handi eta koloretsuak baizik, tamaina bera duten tomate biribilak, uraza edo letxuga berde-berdeak. Itxura “perfektua” ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen, saltokiek arbuatuta. Legediak berak ez du asko laguntzen: Europar Batasuneko arauen

arabera, esaterako, 50 milimetroko diametroa edo 70 gramoko pisua ez duen sagarrik ezin da saldu, ezta 62 gramo baino gutxiago duen kiwirik. Okerregiak, zuzenegiak, txikiegiak, handiegiak direlako, bildutako bananen %20-40 artean botatzen da urtero Latinoamerikan eta Afrikan (20 milioi tona inguru). Europar Batasunak ezarritako tamaina baino txikiagoa duelako edo interesatzen ez zaien espeziea delako, europar arrantzaleek harrapatutako arrainen %40-60 alboratzen dute. Moldeko ogi bakoitzetik lau ogi xerra (hasierako biak eta bukaerako biak) zakarretara botatzera behartzen ditu langileak Mark & Spencer konpainiak, ertzak saihesteko. Herrialde anglosaxoietan, aldiari behin etxeko hozkailua hustu eta dagoen guztia botatzeko ohitura zabalduta dago, "garbitzeko". Asko dira horrelako adibideak, eta ondorioz, asko da usteltzen uzten den janaria, osasuntsua eta gozoa izan arren.

#### (4. paragrafoa)

Horren erakusgarri, hona datu gutxi batzuk, arazoaren dimentsioaz jabetzeko. Sarrerari aipatu bezala, kontsumitzen dugunaren ia erdia zaborretara doa Europan, eta ahortzen ditugun animaliak elikatzeko erabiltzen den jana kontuan hartuz gero, bi heren doa konainerretara. Tristram Stuartek *Waste. Uncovering the Global Food Scandal* (Alferrik galtzea. Janariaren eskandalu globala azaleratzen) liburuan argitzen duenez, sektoreko fase guztietan gertatzen da galera (elikagaien ekoizpenean, garraioan, saltokietan eta etxeetan). Hainbat ikerketaren arabera, produktutakoaren herena botatzen du Europako manufaktura eta prozesamendu industriak, eta arrantzatzen den guztitik erdia baino zertxobait gehiago baino ez dugu jaten - aingira, paneka, liba... tonaka botatzen dira "nahi gabe" arrantzatu ostean, ez direlako salgarriak-. Europako saltoki handi batek 500-600 tona jaki botatzen ditu urtero, eta eskoletan zerbitzatzen den jakien %24-35ak zakarontzian amaitzen du. Etxean ere janari asko baztertzen omen dugu kontsumitzaileok, nahiz eta kontziente ez izan: herritar europarrak uste du %4 inguru botatzen duela, baina egiaz ia-ia %20 da.

#### (5. paragrafoa)

Gaiari duela gutxi heldu dio Europar Batasunak, iaz eskatutako txostenaren datuek behartuta: EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara, hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo produktu jangarri eta osasuntsu mespretxatzen ditu (kilo erdia egunero). Dagoeneko, Elikagaiak Alferrik Galtzearen Kontrako Urtea izendatu du EBk 2013a.

#### (6. paragrafoa)

Lehen Munduko soberakinekin gose diren 1.000 milioi persona elikatuko genituzkeen arren, azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea, baizik soberakinik ez sortzea.

#### (7. paragrafoa)

### *SUPERMERKATU ETA JANGELETAKO ATZEALDEAK*

Saltoki txiki nahiz handietan janari andana galtzen da alferrik. Hasteko, hornitzaileekin duten harremanak du eragina: eskatutako produktuen kopurua ondo kalkulatu behar da, baina supermerkatuan saldu ez dena hornitzaileari itzuli ahal izateak utzikeria errazten du hainbatetan. Gainera, barietatea eta berriena eduki beharrak ere sortzen ditu soberakinak: "Denetarik izan behar dugu apalategietan, jendeak aukera nahi izaten du, ikusteko, probatzeko... eta horrek behar baino produktu gehiago izatea Dakar", azaldu digu bere izena eman nahi ez duen Eroski supermerkatu bateko langileak. "Era berean, iraungitze dauden produktu ugari botatzen ditugu, jogurtak pila bat, iraungi baino bost egun lehenago; arraina, fruituak, barazkiak... ere zakarretara doaz, itxura aldetik zatitzen hasten direnean". Saltoki eta jatetxeei merke ateratzen zaie jana botatzea, hornitzaileengandik gutxi ordainduta lortzen dituztelako produktuak, eta behin kopuru jakin bat salduta, errentagarritasuna ziurtatuta dute. Dena den, neurriak hartzen hasiak direla ere azpimarratu du Eroskiko langileak: "Bolada batean astakeria izan da zenbat bota den supermerkatuan, niri neuri lotsa ematen zidan

zakarretara botatzeak, baina pixkanaka aldatzen ari dira gauzak, formula berriak atera dituzte, iraungitze arazoak dauden produktuak merkatuz adibidez, bi jogurt baten prezioan, haragia %30 merkeago iraungi baino egun bat lehenago... eta badago horretaz baliatzen den jendea, krisi garaioan itxaroten egoten direnak produktua merkatu ahala erosteko”.

(8. paragrafoa)

### *IRAUNGITZE ETIKETA NAHASGARRIAK*

Jana alferrik galtzearen arrazoi handietako bat produktuaren iraungitze dataekin dagoen nahasmena da. Jakien etiketa irakurtzean, ezberdindu egin behar ditugu, batetik, “Tapakian adierazitako data baino lehen kontsumitu” delakoa –alegia, gaztelaniaz irakurri ohi dugun “Consumir preferentemente antes de”-, eta, bestetik, “Iraungitze data”. Sarri lehenengo oharra baino ez du eramaten etiketak, eta data horrek ez du iraungitze data adierazten, baizik eta fabrikatzaileak iritzi diola data horretatik aurrera produktuak ez dituela beharbada hasierako ezaugarri guztiak bere horretan mantenduko. Hala azaldu digu Iosune Cantalejo Nafarroako Unibertsitate Publikoko Elikagaien Teknologia saileko irakasleak: “Kontsumitu... baino lehen” jartzen badu, ez du esan nahi hortik aurrera ezin daitekeenik kontsumitu eta osasunerako arriskua duenik, esan nahi du sensorialki ez dela agian bere onenean egongo. Baina jogurta iraungita ere, egun batzuetara jan dezaket lasai asko, besterik gabe egunak pasa ahala geroz eta garrantzago egongo da, bizirik dauden bakterioak jogurtaren azukrea jaten ari direlako, eta hilabetera hartutako gosaritako zerealak ez dira hasieran bezain kurruskari egongo, txokolatea zahartzen joango da hilabeteekin, baina osasunari ez diote kalterik egingo. Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak”.

(9. paragrafoa)

Ardura gehien itsaskiarekin izan behar dela ohartarazi du Josune Cantalejo, baita haragi eta arrain freskoarekin ere, garrantzitsua da

janaria ondo kontserbatzea eta hotz katea ez haustea. Aldiz, kontserbek asko irauten dute: tratamendu termikoa izan dute. “Inportantea da produktuaren etiketak irakurtzen jakitea, eta etiketak informazio osatua eta egokia duela ziurtatzea. Hala, gomendioak betetzea baino ez dago: leku lehor eta hotzetan mantentzea eta halakoak. Hozkailua zenbatetan irekitzen dugun eta barnean zenbat janari dugun ere kontuan hartzea komeni da, temperatura funtsezkoa baita, produktua ez hondatzeko”.

(10. paragrafoa)

### *EKINTZAILEAK ETA ELIKAGAIEN BANKUAK*

Soberakinik ez sortzea da funtsa, baina behin sortutakoan, zer egin janari horrekin? Saltokietako kontainerretatik arrantzatutakoaz elikatzen urteak eman ditu Tristram Stuartek; lehen aipaturiko liburuan kontatzen du esperientzia, eta harrigarria da zein otordu aberatsak egin daitezkeen baztertu den janaria berreskuratuz. Supermerkatuek botatakoa etxeratze elkartzen den jendea ugaritu egin da: ez dira eskaleak, ekintzaileak baizik, edo besterik gabe janaria usteltzen uzteko prest ez daudenak. Sarri, behar dutenen artean banatzen dute lortutakoa; Baiona eta Bokaleko taldetxo batek, hain juxtu, hamabost bat laguni ematen die jaten, saltokien zabortegetatik hartutako hondar baliotsuekin. Batzuetan, ordea, ez da lan samurra: supermerkatu handietako kontainerrak gordeta egoten dira zenbaitetan, edo paketeak irekita, puskatuta eta janari dena nahasita.

(11. paragrafoa)

Boluntarioen lanari esker, Euskal Herriko Elikagaien Bankuek milaka kilo janari eskuratzen dituzte Recondo, Puleva, Beti Ona fruituak, Ortiz kontserbak, San Marcial harategiak, Urdaki, Eroski, Carrefour, Alcampo eta abar luze baten eskutik. Bankuek beraiek jasotzen dute jana eta ondoren, gobernu kanpoko erakundeak eta antzeko elkarteak arduratzen dira Bankuetatik elikagaiak hartu eta behar dutenen artean banatzeaz. “MercaBilbaora joaten gara goizero, eta heldu

zaizkielako dendek erosiko ez dizkieten produktuak, kontsumitzeko primeran daudenak, eskuratzen ditugu; edo supermerkatuek produktu jakin batekin egin duten kanpaina berezitik sobera geratu dena; baita akatsen bat duela irizten diotelako, iraungitze datatik gertu dagoelako edo lurrera erori delako baztertzan dituzten jakiak ere...”, azaldu du Nicolas Palaciossek, Bizkaiko Elikagaien Bankuko presidentea.

(12. paragrafoa)

### *GUK EGIN DEZAKEGUNA*

Jatetxean, platerak aurrez prestatu ordez, ahal den neurrian, hobe bezeroek eskatu ahala kozinatzea, erabili gabeko lehengaiak gordetzeko; lekua aurrez enkargatzea ere komeni da, kalkuluak fintzeko; eta soberakinak ontzi batean eramateko lotsarik ez genuke izan behar. Supermerkatuek aukera eman diezaiekete jaki “itsusiei”, eta aurreikuspen onak egiteak –gehen/gutxien kontsumitzen diren produktuetan arreta jarritz- asko murriztu dezake elikagaien xahutzea. Araudia zorroztu daiteke: adibidez, Norvegiar egiten den gisan, botatzen dutena publiko egitera behartu daitezke enpresak, jendearen aurrean irudi garbia eman nahian eraginkorrago joko dezaten; hondakindegietara jana eramatea debeka daiteke; jan hondakinei tasa bat ezarri; edota praktika onak saritu.

Legedia zorrozteko bide horretan, neurriak hartzeko asmoa agertu du Europar Batasunak, eta 2025erako elikadura hondakinak erdira jaiste da Nazio Batuen xedea.

(13. paragrafoa)

Guk geuk, noski, ez da gutxi egin dezakeguna, ekintza errazak izanik. Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea gomendatzen digu Tristraam Stuartek; kopuruak ondo neurtu eta soberakinak aprobetxatzea, berrerabiltzea, izoztea eta birziklatzea ohitura bihurtu dezakegu –soberakinak aprobetxatzeko jaio ziren kaneloiak, baratxuri-zopa, pain perdu postrea...-; eta egungo kontsumo erdua norberak alda dezake, bitartekaririk gabe

zuzenean inguruko ekoizleei erosiz. Adibide bakan batzuk baino ez dira, finean garai bateko ardura berreskuratzea baita gakoa, beharbada gaur egun elikagaiek duten balio ekonomiko hutsalarengatik galdu dugun kontzientzia berreskuratzea. Osterantzean, planetan bera galdutko dugu alferrik.

(14. paragrafoa)

MIKEL GARCIA

[www.argia.com](http://www.argia.com)

(egokitua)

Testu hori IXA taldeak konputagailuaren bitartez abstrakziozko laburpenak egiteko diseinatutako programan, compress.eus programan, ikasleek eskuragarri izateko, prestaketa lana egin behar izan da, IXA taldearekin eta talde teknikoarekin batera.

1. Jatorrizko testua TXT (UTF8) formatuan jarri.
2. Testua segmentatu, hau da, testua oinarrizko diskurtso-unitateetan (EDU) zatitu. EDU bat aditza duen perpaus adjuntua edo independentea da.
3. Ideia nagusia zein den zehaztu, hau da, testuko unitaterik garrantzitsuena edo unitate zentrala (UZ) zehaztu.

**Irakaslearen laburpena:** ikerketarako abiapuntua izan da, ikasleen laburpenak horrekin konparatuta, zer nolako berdintasun eta desberdintasunak dauden (UZ-a, hitz kopurua, EDU-en eta paragrafoen aukeraketa...) edo bestela esanda, zenbat hurruntzen edo hurbiltzen diren irakaslearen laburpenera, urre-patroira. Hona hemen urre-patroia eta unitate zentrala:

---

## URRE-PATROIA

---

### **SAIHETS DITZAKEGUN ZIFRA BELDURGARRIAK**

Europan eta AEBetan, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu; EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara. Zenbaki eskandalagarri horiek saihets daitezke, ordea.

Itxura "perfektua" ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen, saltoki eta jatetxeei merke ateratzen zaie jana botatzea... Jana alferrik galtzearen beste arrazoi handietako bat produktuen iraungitze datarekin dagoen nahasmena da.

Soberakinik ez sortzea izanik funtsa, ez da gutxi guk egin dezakeguna: saltokietan, iraungitzearen dauden produktuak merkatu, jaki "itsusiei" aukera eman eta gehien/gutxien kontsumitzen diren produktuen arabera aurreikuspenak egin; jatetxeetan, bezeroek eskatu ahala kozinatu; erosleok produktuen etiketak irakurtzen ikasi, soberakinak berrerabili...

Osterantzean, jakiak soilik ez, planeta bera ere galduko dugu alferrik."

---

## UNITATE ZENTRALA

---

Zenbaki eskandalagarri horiek saihets daitezke, ordea.

---

1. taula: urre-patroia

**Ikasleen laburpen multzoa:** 16 testuk osatu dute. Hasieran, 20 testuk osatzea zen asmoa, baina horietako lauk arazoak izan dituzte estrakziozko laburpenetik abstrakziozkoa editatzean eta, arazo teknikoak direla medio, ezin izan ditugu testu laburpen horien datuak eskuratu. Irakasleak eurek egindako lana ikuste eta ebaluatze aldera, testua programatik kopiatu eta Drive bidez konpartitu dute, baina estrakziozko laburpena lortzeko modurik ez dugu aurkitu. Horregatik, ez ditugu corpus-ean sartu, gure hellburua estrakziozko eta abstrakziozko laburpenak deskribatzean, bien arteko alderaketa egitea ere baita.

Corpus-erako erabili diren laburpenak egiten hasi baino lehen, aurrelanketa bat egin dugu. Horretarako, baliabide teknologikoak baliatu ditugu; batetik, konpetentzia digitalak lantzeko, eta bestetik, askoz motibagarriago suertatzen zaizkielako modu digitalan egindako jarduerak. (<http://www.ikasbil.eus>)

Aurrelanketa hori jarduera sekuentzia batean datza.

1. “Testu-laburpenak egiteko aholkuei eta ereduari erreparatu”:

Jarduera honetan, testu bat laburtzeko jarraitu beharreko urratsak aurkezten dira.

- Testua gutxienez birritan irakurri eta gako-hitzak azpimarratu.
- Ondo ulertu testuaren gaia zein den eta idatzi.
- Paragrafo bakoitzeko ideia nagusia azpimarratu.
- Azpimarratutako ideia nagusien zerrenda egin, laburpenaren gidoia osatzeko.
- Ideia nagusi bakoitzeko paragrafo bakar bat idatzi, esaldien arteko loturak eta puntuazio-marka egokiak erabiliz, eta , behar izanez gero, jatorrizko bertsioan agertzen diren hitzen baliokideak erabili.

Urrats horiez gain, gidoi-proposamen bat ere eskaintzen zaie. Gidoi hori aztertu ondoren, jatorrizko testua ikusteko aukera dute. Eredua ikustea garrantzitsua da, egin beharko dutena argiago izate aldera.

2. “Gidoia osatu: paragrafo bakoitzearen laburpena aukeratu”. Jarduera honetan, ikasleek eurek egin behar dute testu baten gidoia. Horretarako, artikulua paragrafoz paragrafo irakurtzeko eskatzen zaie, gako hitzetan erreparatuta, eta bakoitzaren laburpen zuzena aukeratu. Batetik, beraz, testu osoa daukate, eta bestetik, ideia nagusiak elkarri lotzeko.



3. “Lehenengo jardueran emandako aholkuei jarraituz, laburpena egin”. Horretarako, erabilgarri izan dakizkiekeen zenbait lotura hitz eskaintzen zaizkie (ideiak gehitzekoak, adibideak ematekoak, aurkaritzakoak eta arrazoitzekoak, kausa-ondorioa adieraztekoak). Proposatutako testu baten 10 bat lerroko laburpena egiteko eskatzen zaie.

4. Egindakoa txekeatu: autoebaluazio errubrika. Nork bere lanaren gainean hausnartzea ezinbestekoa da ikaskuntzak zentzua izan dezan. Autoebaluazioari esker, ikasleek euren indarguneak eta ahuleziak ikusten dituzte. Egindako akatsak oso tresna baliagarriak dira ikasteko, eta horrela ulertu behar dituzte.

#### TESTU-LABURPENA: AUTOEBALUAZIORAKO GALDETEGIA

	1	2	3	4	5
1. Argi eta garbi adierazita dago <b>gai nagusia</b> zein den.					
2. Funtsezko <b>ideia guztiak</b> jaso ditut.					
3. Hari nagusiarekin zerikusirik ez zutenean, osagarri eta txikikeria guztiak baztertu ditut.					
4. <b>Zehatz egituratuta</b> dut testua, neure erara, artikulua ordena orpoz orpo jarraitu gabe.					
5. Ez dut ezer errepikatu.					
6. Ideia eta paragrafoak ongi <b>lotu ditut</b> .					
7. <b>Lotura hizkiak</b> (hala ere; hau da; adibidez; beraz...) erabili ditut testuari kohesioa emateko.					
8. Artikuluaren berri izan gabe, irakurle batek erraz uler dezake nire laburpena.					
9. Testuan aipatzen direnak laburtu ditut, neure iritziak gehitu gabe.					
10. <b>Luzera:</b> laburpena eskatutakora egokitu dut.					

Autoebaluazioaz gain, heteroebaluazioa ere egin da. Ikasleek Drive-en bitartez, egindako laburpenak irakaslearekin partekatu dituzte, ebalua ditzan.

## 2. Estrakziozko laburpenak

Aurrelanketa amaituta, 16 ikasle horiek, laburpenak teknologia berrien laguntzaz egin dituzte, zehazki, IXA taldeak abstrakziozko laburpenak egiteko diseinatu berri duen tresna erabili dute. Hasteko estrakzioz egindako laburpenak egin dituzte, hau da, testu osoko segmentu edo EDU garrantzitsuenak aukeratu. Ondoren, EDU zerrenda hori zuzendu eta editatu dute, abstrakziozko edo eskuzko laburpenak izan direnak.


Ikasleek compress.eus tresnaren gidako jarraibide hauek jarraituz, euren estrakziozko laburpen testuak egin dituzte:

**“OHARRA:** Ez aukeratu *“Eragotzi orri honi elkarrizketa-koadro gehiago sortzea”*, bestela ezingo duzu laburpena editatu eta egindakoa gorde.

Gogoratu behar dituzun zenbait alderdi garrantzitsu:

- Prozesuko edozein unetan, testua berriz egiten hasteko klikatu TESTUA BERRASI botoian.
- TESTU KONPRIMATUA lortzeko, segmentuak aldeztatik mugatu dira eta ezin dira moldatu.
- Segmentuaren ertz borobilduak soilik adierazten du beronen amaiera, ertza zuzena bada, segmentuak hurrengo lerroan jarraituko du.
- Gutxienez segmentu bat mantendu edo kendu beharko duzu testu bakoitzean, hurrengo testua egin ahal izateko.
- Garrantzitsuena soilik mantendu behar duzu.
- Konprimatutako esaldi bat letra minuskula batekin has daiteke, gero testua editatu eta horrelako zein bestelako akatsak konpondu ahalko dituzu.
- Konprimatutako esaldi baten amaiera puntua ez den beste ikurren bat izan daiteke.
- Ahalik eta gehien konprimatu behar da.
- Segmentuen gainean klik eginez gaitzen edo ezabatzen dira segmentuak.
- TESTU KONPRIMATUA bukatuta, LABURPENA IKUSI ETA EDITATU botoian klikatu eta LABURPENA ESKUZ ZUZENTZEKO atala gaituko duzu
- Nahi duzun laburpena osatzeko, edozelako zuzenketak egin ditzakezu, baita testu osoa moldatu ere
- TESTUA BUKATU botoia sakatu ostean, ezin daiteke testu bera berriz egin eta hurrengo testua agertuko zaizu.
- Testu guztiak amaitzean, amaiera-mezua agertuko zaizu. “

Estrakzio lanaren nondik norakoak argiago ikusteko, honako irudi honetan ikasleek ordenagailuaren pantailan aurkituko dutena ikusten dugu.:



### 1. irudia: compres.eus programa

Irudian ikus dezakegunez, ezkerreko testua segmentuetan, EDU-etan, banatuta dago. Ikasleek laburpena egiteko beharrezkotzat jotzen ez dituzten EDU-ak aukeratu ahala (gainean klikatuz), eskuineko testu konprimituan desagertzen joango dira. Behin esktrakzioa eginda, testua editatu egingo dute, prozesua amaitzeko.

### 3. Abstrakziozko laburpen testuen ebaluazioa.

**Ikasleen laburpen testuen ebaluazioa:** Corpus-a osatzen duten laburpen testuak sailkatze aldera, ikasleek egindako abstrakziozko laburpenak eskuz ebaluatu ditugu. Hain zuzen ere, hauek izan dira erabilitako ebaluazio irizpideak:

#### 1. KOMUNIKAZIOA:

- Hartzailea kontuan hartu den ala ez, hau da, hartzaileak jatorrizko testua irakurri gabe, egindako laburpenak aski argi uzten duen jatorrizko testuaren mezu nagusia.
- Ideiak argiak diren ala ez.
- Informazio nahikoa eman duten ala ez.

#### 2. TESTUAREN ANTOLAKETA:

- Paragrafo bakoitzak ideia bat jorratzen duen.

- Paragrafoen hurrenkera modu logikoan antolatuta dagoen.
- Ideien arteko konexioa mantendu den.
- Ideien arteko koherentzia erlazioa mantendu den.

### 3. ZUZENTASUNA:

- Sintaxi aldetik, zuzena den.
- Ortografia eta puntuazio markak egokiak diren.

Ebaluazio irizpide horiek kontuan hartuz, gure sailkapena egin dugu.

Laburpenak hiru multzotan banatu ditugu: a) laburpen onak (aurrerantzean: ikaslea21, ikaslea15, ikaslea12 eta ikaslea3 deiturikoak), b) laburpen txarrak (aurrerantzean: ikaslea8, ikaslea23, ikaslea24 eta ikaslea11 deiturikoak) eta c) tarteko laburpenak (aurrerantzean: ikaslea18, ikaslea4, ikaslea22, ikaslea6, ikaslea5, ikaslea17, ikaslea14 eta ikaslea10). Sailkapen hori egiteko, kalifikazio handitik txikira ordenatu ditugu, %75etik gorakoak laburpen onak izango dira eta %25etik beherakoak laburpen txarrak; beraz, tarteko laburpenak %25-%75 bitartekoak izango dira.

Bi ikasleren abstrakziozko laburpenak jaso ditugu hemen, irizpide horiek nola aplikatu diren ikusteko, bata laburpen onetako baten egilearena (ikaslea21) eta bestea laburpen txarretako baten egilearena (ikaslea23):

Ikaslea21-en laburpen testuan, egia da unitate zentrala ez dela ageri; hala ere, testuaren mezua argi geratzen da (azken paragrafoan). Ideiak argiak dira eta informazio nahikoa ematen du. Ideien antolaketari dagokionez, hurrenkera logikoa da, eta paragrafo bakoitzak ideia bat azaltzen du. Kohesioari dagokionez, ordea, nabari da juntagailu eta antolatzailen hutsunea, horren arrazoia izan daiteke laburpen automatikoak egiteko programekin trebezia falta izatea. Azken finean, esan daiteke testuak koherentzia duela, diskurtso unitateen arteko koherentziazko erlazioa egokia dela. Horrek guztiak testua ulergarri egiten du.

Ikaslea23-ren laburpen testuan, esaldi amaitugabeak ditugu (“kontsumitzen dugunaren ia erdia zaborretara doa European, eta ahoratzen ditugun animaliak elikatzeko erabiltzen den jana kontuan hartuz gero.”). 4. eta 5. paragrafoek ez dute loturarik nahiz eta ideia bera jorratu, ez dago koherentziazko erlaziozko gainera, 5. paragrafoan argudio gisa erabiltzen duen adituaren izena ez da aurretik aipatu, beraz, ulergaitz geratzen da. Horren harira, 6. paragrafoan ere “lehen aipaturiko liburuan” dio, baina ez du libururik aipatu. Azken finean, laburpen testu hau irakurrita, hartzaileak ez

du mezua ulertuko, ideien hurrenkerak ez du zentzurik eta ideien arteko koherentzia erlazioa ere oso eskasa da.

Izena: ikaslea21

Europan eta AEBn asko da usteltzen uzten den janaria, osasuntsua izan arren. Produzitutakoaren herena botatzen du Europako industriak (urtean 90 milioi tona).

Saltokietan janaria alferrik galtzen da. Merke ateratzen zaie jana botatzea, eta behin kopuru jakin bat salduta, errentagarritasuna ziurtatuta dute.

Jana alferrik galtzearen arrazoi handietako bat produktuen iraungitze datarekin dagoen nahasmena da. Maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak.

Soberakinik ez sortzea da funtsa, baina behin sortutakoan, zer egin janari horrekin? Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzen den jendea ugaritu egin da. Boluntarioen lanari esker, Elikagaien Bankuek milaka kilo janari eskuratzen dituzte. Gobernuak kanpoko erakundeak arduratzen dira elikagaiak behar dutenen artean banatzeaz.

Ez da gutxi egin dezakeguna. Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea, kopuruak ondo neurtu eta soberakinak aprobetxatzea... Araudia zorroztu daiteke: adibidez, Norvegian egiten den gisan, botatzen dutena publiko egitera behartu daitezke enpresak.

Izena: ikaslea23

Europan eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu, edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara.

Itxura " perfektua " ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen, saltokiek arbuaiatuta.

Sarreran aipatu bezala, kontsumitzen dugunaren ia erdia zaborretara doa Europan, eta ahoratzen ditugun animaliak elikatzeko erabiltzen den jana kontuan hartuz gero.

Jakien etiketa irakurtzean, ezberdindu egin behar ditugu, batetik, " Tapakian adierazitako data baino lehen kontsumitu " delakoa - alegia, gaztelaniaz irakurri ohi dugun " Consumir preferentemente antes de " -, eta, bestetik, " Iraungitze data ".

Ardura gehien itsaskiarekin izan behar dela ohartarazi du Josune Cantalejok, baita haragi eta arrain freskoarekin ere, garrantzitsua da janaria ondo kontserbatzea eta hotz katea ez haustea.

Saltokietako kontainerretatik arrantzatutakoaz elikatzen urteak eman ditu Tristram Stuartek ; lehen aipaturiko liburuan kontatzen du esperientzia, eta harrigarria da zein otordu aberatsak egin daitezkeen baztertu den janaria berreskuratuz. Sarri, behar dutenen artean banatzen dute lortutakoa ; Baiona eta Bokaleko taldetxo batek, hain juxtu, hamabost bat laguni ematen die jaten, saltokien zabortegetatik hartutako hondar baliotsuekin.

Araudia zorroztu daiteke : adibidez, Norvegian egiten den gisan, botatzen dutena publiko egitera behartu daitezke enpresak, jendearen aurrean irudi garbia eman nahian eraginkorrago joka dezaten ; hondakindegietara jana eramatea debeka daiteke ; jan hondakinei tasa bat ezarri ; edota praktika onak saritu.

### 3. Corpus-etik ateratako datuak.

**3.1. Jatorrizko testuaren datuak:** Jatorrizko testuaren datuak jaso ditugu (4. taula). Zenbat paragrafotan banatuta dagoen, paragrafo bakoitzean zenbat EDU dauden eta zenbat hitzez osatuta dauden. Era berean, konputo osoa ere adierazi dugu, hau da, jatorrizko testuak zenbat hitz dituen eta zenbat EDU-tan banaturik dagoen.

Taula hau baliagarri izango zaigu, bai urre-patroiaren datuak ulertzeko bai irakasleen laburpen testuenak.

#### DOKUMENTUAREN DATUAK

PARAGRAFOAK	EDU KOPURUA	HITZ KOPURUA
1. paragrafoa	1	4
2. paragrafoa	7	43
3. paragrafoa	22	168
4. paragrafoa	18	145
5. paragrafoa	5	45
6. paragrafoa	3	23
7. paragrafoa	27	200
8. paragrafoa	19	178
9. paragrafoa	10	82
10. paragrafoa	17	112
11. paragrafoa	13	109
12. paragrafoa	20	118
13. paragrafoa	11	87
14. paragrafoa	1	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>174</b>	<b>1.319</b>

4. taula: dokumentuaren datuak.

**3.2. Urre-patroiaren datuak:** Arestian aipatu dugun bezala, irakaslearen laburpena ikerketarako abiapuntutzat hartu dugu, aurrerantzean urre-patroia deituko diogu. Jatorrizko testuko paragrafo bakoitzak zenbat hitz dituen eta zenbat EDU-tan dagoen banatuta kontuan izanik, urre-patroian paragrafo bakoitzean kendutako EDU

kopurua eta hitz kopurua adierazi ditugu. Azken finean, laburpenaren helburua informazio nagusia mantentzea eta gehigarria edo testuaren ulergarritasunari eragingo ez dion informazioa kentzea da.

5. taulan, gure urre-patroiaren datuak erakusten dira. Datuak ikusita, aipagarria da 4., 6. eta 11. paragrafoak erabat ezabatu direla; izan ere, datu gehigarriak direla ikus daiteke. 4. eta 11. paragrafoen kasuan, aurretik esandakoa indartze aldera, datu gehiago ematen dira, gure laburpenean beharrezkotzat jo ez ditugunak. 6. paragrafoan, berriz, adierazitakoa garrantzitsua izanda ere, 10.ean ideia hori errepikatu egiten da modu argiagoan.

Bestetik, ezer ez edo oso EDU gutxi kendu diren paragrafoak ditugu: 1.a izenburuari dagokio eta 12. eta 13. paragrafoek unitate zentralarekiko erlazio-koherentzia mantentzen dute gehien.

#### URRE-PATROIAREN DATUAK

PARAGRAFOA	PARAG. EDU KOPURUA	KENDUTAKO EDU KOPURUA PARAG.	PARAG. HITZ KOPURUA	KENDUTAKO HITZ KOPURUA PARAG.
1. paragrafoa	1	0	4	0
2. paragrafoa	7	5	43	29
3. paragrafoa	22	21	168	154
4. paragrafoa	18	18	145	145
5. paragrafoa	5	4	45	37
6. paragrafoa	3	3	23	23
7. paragrafoa	27	25	200	188
8. paragrafoa	19	18	178	163
9. paragrafoa	10	9	82	75
10. paragrafoa	17	16	112	103
11. paragrafoa	13	13	109	109
12. paragrafoa	20	16	118	85
13. paragrafoa	11	8	87	61
14. paragrafoa	1	0	5	0
<b>GUZTIRA</b>	174	156	1319	1172
<b>GUZTIRA %</b>		89.66		88.85

5. taula: urre-patroiaren datuak

**3.3. Ikasleen laburpenen datuak:** Ikasleen laburpen testuak aztertu ditugu eta ondorioak atera, alderaketa hori esanguratsua den ala ez frogatze aldera. Batetik, jatorrizko testutik kendutako EDU kopurua eta hitz kopurua islatu ditugu; eta, bestetik, unitate zentrala kendu duten ala ez eta paragrafo bakoitzean kendutako EDU kopurua, datu esanguratsuagoak emango dizkigulakoan.

Kopuruen aldetiko azterketa egin ondoren, paragrafoz paragrafo erre-patroiak mantendu dituen EDU-ak eta ikasleenak bat datozen aztertuko dugu. Izan ere, hain testu luzea izanik, 174 EDU-z osatua, baliteke kopuru bertsuak izatea, baina oso portzentaje txikian erre-patroikoekin bat etortzea.

Horretarako, testuak dituen 174 EDU-etatik paragrafoz paragrafo erre-patroiaren zenbatgarren EDU-ak mantendu diren adierazi dugu, bai laburpen testu onetan bai laburpen testu txarretan. Bukatzeko, erre-patroiarekin bat datozen EDU kopuruak adierazi ditugu.

#### **4. Erlaziozko diskurtso egitura.**

Diskurtso unitate guztiek testuan ez dute garrantzi bera, hau da, jatorrizko testuaren egileak ideia nagusia helarazteko erabilitako diskurtso unitate batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak dira. Lehenengoei nukleo-unitate deitzen zaie eta bigarrenei satellite-unitate (ideia nagusien xehetasunak azaltzen dituztenak), unitate bat nukleo ala satellite den esateari nukleartasuna erabakitzea esaten zaio, eta nukleartasuna koherentziarekin lotuta dago. Aztergai diren gure laburpenetako erlaziozko diskurtso egitura, beraz, horien arteko erlazioan datza.

Gure laburpenen deskribapena egiteko kopuruei dagozkien datuak aztertu ondoren, zein diskurtso unitate (EDU) hautatu edo kendu duten ikusita, unitate zentralarekiko zer nolako erlazioa mantentzen duten aztertu dugu. Horiek deskribatzeko Hizkuntzaren Prozesamendurako tresnen laguntza baliatu dugu, hala nola, "Euskal RST TreeBank"-a. RST-ko, Egitura Erretorikoaren Teoria-ko (*Rhetorical Structure Theory*), zuhaitza egin dugu, zuhaitz horrek gure erre-patroiaren erlaziozko diskurtso-egitura eman digu, gure corpus-a deskribatzeko oso baliagarri izan zaiguna.

#### **EMAITZAK:**

Ikasleen laburpenak irakasleak egindako laburpenarekin, erre-patroiarekin, alderatu ditugu. Kopuruei begiratuta (6. taula), argi dago ez datorrela bat eskuz egindako laburpenen ebaluazioarekin. Hau da, erre-patroiarekin alderatuz gero, datuetan gehien hurbiltzen diren laburpen testuak ez dira ontzat hartu ditugunak soilik, txarren artean ere ikus dezakegu kopuru horietara asko hurbiltzen den laburpen



testurik ere badela, eta alderantziz. Beraz, esan dezakegu laburpen testu bat ontzat edo txartzat emateko, kopuruak ez direla fidagarriak eta bestelako azterketa eskatzen duela.

### CORPUS-AREN DATU OROKORRAK

	KENDUTAKO EDU KOPURUA	KENDUTAKO EDU KOPURUA %	KENDUTAKO HITZ KOPURUA	KENDUTAKO HITZ KOPURUA %
<b>URRE-PATROIA</b>	156	89.66	1172	88.85
<b>IKASLEA 21</b>	134	77.01	1010	76.57
<b>IKASLEA 15</b>	141	81.03	1090	82.63
<b>IKASLEA 12</b>	136	78.16	1041	78.92
<b>IKASLEA 3</b>	156	89.66	1145	86.80
<b>IKASLEA 17</b>	161	92.53	1202	91.12
<b>IKASLEA 4</b>	117	67.24	821	62.24
<b>IKASLEA 22</b>	137	78.74	1052	79.75
<b>IKASLEA 6</b>	149	85.63	1122	85.06
<b>IKASLEA 18</b>	135	77.59	1055	79.98
<b>IKASLEA 5</b>	129	74.14	980	74.30
<b>IKASLEA 10</b>	137	78.74	1075	81.50
<b>IKASLEA 14</b>	152	87.36	1140	86.43
<b>IKASLEA 8</b>	163	93.68	1236	93.70
<b>IKASLEA 24</b>	142	81.61	1073	81.34
<b>IKASLEA 23</b>	144	82.76	1076	81.57
<b>IKASLEA 11</b>	149	85.63	1128	85.51

6. taula: corpus-aren datuak.

7. taulan, berriz, badirudi datu esanguratsuak agertzen hasten direla. Batetik, aipagarria deritzogu 1. paragrafoan ikus daitekeena: EDU bakarreko paragrafoa dugu, hain zuzen ere, izenburuari dagokiona. Taulan agerian gelditu da laburpen onen %100ek mantendu egin dutela; laburpen txarren artean, berriz, %25ek baino ez. Tarteko laburpenen datuak taulan ageri ez diren arren, azterketa berean %28,6k baino

ez dute mantendu. Izenburua kentzeko arrazoia baliteke haren funtzioa argi ez dutela izatea, baina abstrakziozko laburpenak egiteko tresna honetan trebakuntza ez izatea ere izan liteke arrazoia. Izan ere, ikasleek corpus-erako bildutako testu laburpenak egin baino lehen, aurrelanketa egin zuten, eta bertan egindako laburpenetan, ikasleen %90ek izenburua jarri zioten euren laburpenari.

Unitate zentralari dagokionez ere badugu zeresanik, laburpen onen %50ek mantendu egin dute, laburpen txarren eta tartekoen %100ek, aldiz, kendu egin dute. Unitate zentrala testuko unitaterik garrantzitsuena izanik, eragin handia izango du laburpenetan mantendutako edo kendutako EDU-en aukeraketan; beraz, ulergarria izan daiteke urre-patroiaren eta ikasleen laburpen testuen arteko aldea handia izatea. Izan ere, unitate zentraltzat beste bat hartuz gero, horrekiko erlazio koherentzia desberdina izango da.

#### KENDUTAKO EDU KOPURUAK PARAGRAFOKO ETA UZ-A KENDU DUTEN ALA EZ

	URRE-PATROIA	IKASLE 21	IKASLE 15	IKASLE 12	IKASLE 3	IKASLE 8	IKASLE 24	IKASLE 23	IKASLE 11
1. parag.	0	0	0	0	0	0	1	1	1
2. parag.	5	5	0	5	6	5	6	5	5
3. parag.	21	18	17	20	19	20	17	20	18
4. parag.	18	16	14	16	15	18	17	14	15
5. parag.	4	4	4	3	3	4	4	5	4
6. parag.	3	3	0	3	2	0	3	3	3
7. parag.	25	22	21	26	26	27	22	24	24
8. parag.	18	17	18	15	19	18	14	16	19
9. parag.	9	10	9	10	10	10	8	8	9
10. parag.	16	12	17	17	16	17	16	11	16
11. parag.	13	8	13	9	11	13	9	13	11
12. parag.	16	14	18	4	19	20	16	13	16
13. parag.	8	5	10	8	10	10	9	11	8
14. parag.	0	0	0	0	0	0	0	0	0
UNITATE ZENTRALA	UZ 0	UZ 0	UZ 0	UZ 1	UZ 1	UZ 1	UZ 1	UZ 1	UZ 1

7. taula: kendutako EDU kopuruak paragrafoko eta UZ-a kendu duten ala ez.

## URRE-PATROIKO EDU-EKIKO KOINTZIDENTZ

	URRE-PATROIA	Ikaslea21	Ikaslea15	Ikaslea12	Ikaslea3	Ikaslea8	Ikaslea24	Ikaslea23	Ikaslea11
1. parag.	1	1	1	1	1	1	---	---	---
2. parag.	2 4	2 4	3 4 5 6 7 8	3	3	2 3	2	2 3	2 3
3. parag.	12	12 13 29 30	12 13 28 29 30	12	12 29 30	12	12 18 19 29 30	12 13	12 14 29 30
4. parag.	---	38 45	31 38 39 45	38 43	35 45 48	---	38	32 33 34 35	43 47 48
5. parag.	51	51	49	51 52	51 52	---	49	---	53
6. parag.	---	---	54 55 56	---	54	54 55 56	---	---	---
7. parag.	71 81	57 60 71 75	61 71 72 73 74 75	61	61	---	58 61 62 66 76	68 69 70	57 61 71
8. parag.	84	84 102	102	85 86 87 102	---	102	91 92 94 95 96	85 86 87	---
9. parag.	107	---	104	---	---	---	103 106	103 104	103
10. parag.	113	113 114 115 120	---	---	120	---	113	116 117 118 119 123 124	120
11. parag.	---	130 131 132 133 134	---	131 132 133 134	130 131	---	131 134 135 137	---	133 134
12. parag.	143 145 151 152	143 145 149 150 154 155	161 162	143 144 145 146 147 148 149 150 151 152 155 156 157 158 159 160	162	---	143 145 151 154	154 155 156 157 158 159 160	144 146 151 153
13. parag.	163 166 173	163 164 165 166 170	173	164 165 166	163	---	164 173	---	163 165 173
14. parag.	174	174	174	174	174	174	174	174	174
GUZTIRA	18	13	7	10	5	4	8	3	7

8. taula: urre-patroiko EDU-ekiko kointzidentzia

8. taulan, "URRE-PATROIAREN EDU-AK" deritzon zutabean testuak dituen 174 EDU-etatik paragrafoz paragrafo zenbatgarren EDU-ak mantendu diren adierazita dago; ondoren, laburpen testu onen datuak eta laburpen testu txarren datuak, hau da, urre-patroiarekin alderatuta, paragrafo bakoitzeko zein EDU datozen bat eta zein ez adierazi dugu. Azken lerroan, urre-patroiarekin bat datozen EDU kopuruak adierazi ditugu.

Datuak ikusita, laburpen testu onen eta txarren artean alderik badela ikus dezakegu (handia ez bada ere).

Jarraian, urre-patroiak mantendutako EDU-ekiko ikasleen portzentajeak adieraziko ditugu:

Laburpen testu onak:

- Ikasle21-ek urre-patroian mantendutako EDU-en %72.22 mantendu ditu.
- Ikasle15-ek urre-patroian mantendutako EDU-en %38.89 mantendu ditu.
- Ikasle12-k urre-patroian mantendutako EDU-en %55.55 mantendu ditu.
- Ikasle3-k urre-patroian mantendutako EDU-en %27.78 mantendu ditu.

Laburpen testu txarrak:

- Ikaslea8-k urre-patroian mantendutako EDU-en %22.22 mantendu ditu.
- Ikaslea24-k urre-patroian mantendutako EDU-en %44.44 mantendu ditu.
- Ikaslea23-k urre-patroian mantendutako EDU-en %16.67 mantendu ditu.
- Ikaslea11-k urre-patroian mantendutako EDU-en %38.89 mantendu ditu.

Portzentajeak ikusita, laburpen testu onen artean badira bi (ikaslea15 eta ikaslea3) urre-patroiarekiko kointzidentzia eskas samarra ageri dutenak. Eraitza horiek arrazoitzeko, EDU horien unitate zentralarekiko koherentziatzko erlazioa zein motatakoa den begiratu behar dugu, hau da, gai nagusia kontuan izanik, diskurtso osagai horiek elkarren artean dituzten koherentziatzko erlazioak aztertu behar ditugu.

Horretarako, gure urre-patroiaren RST-ko zuhaitza erabili dugu. Bertan, unitate zentralarekin eta diskurtso-unitateen artean zer nolako koherentziatzko erlazioak dauden ikusi dugu, eta gure ikasleen laburpen onetan eta txarretan bat datozen ikusi dugu.



2. irudian, 16 diskurtso-unitate ageri dira, baita horien arteko erlazio koherentzia ere. Nukleo-unitateak 3., 4. (UZ-a), 5., 7., 8., 10., 11., 12., 13. eta 14. diskurtso-unitateak dira. Testuko unitate zentrala, 4. diskurtso-unitatea dugu. Horiek oinarri hartuta, laburpen testu onak eta laburpen testu txarrak urre-patroiarekin alderatuko ditugu, hau da, nukleartasunari begira zer nolako antzekotasun eta desberdintasun ageri diren. Horretarako, laburpen testu onen eta txarren arteko aleraketa egingo dugu.

#### LABURPENETAN ERABILITAKO NUKLEO-UNITATEAK

EGILEA	ESTRAKZIOZKO LABURPENA	ABSTRAKZIOZKO LABURPENA
Ikaslea21	7	4
Ikaslea15	3	3
Ikaslea12	7	7
Ikaslea3	2	1
Ikaslea8	2	2
Ikaslea24	4	4
Ikaslea23	2	2
Ikaslea11	2	2

9. taula: laburpenetan erabilitako nukleo-unitateak

Oro har, taulan ikus dezakegunez, ikasle gehientsuenek estrakziozko laburpenean eta abstrakziozkoan, nukleo-unitate berak mantendu dituzte. Ikaslea21-ek, ordea, abstrakziozkoan 3 nukleo-unitate kendu ditu, gainera, horietako bat unitate zentrala izan da. Hala ere, abstrakziozko testu laburpena ulergarria da, ideien arteko konexioa badu eta koherentea da. Egia da ikasleak ez daudela mota honetako tresnak erabiltzen trebatuta, eta testua laburtu beharraren poderioz, behar ez diren diskurtso unitateak ezabatzea.

Bestetik, azaldu nahiko genuke zergatik ikaslea15-ek eta ikaslea-3k hainbeste unitate-zentral kenduta, testu laburpen ontzat hartu ditugun. Ikaslea15-en kasuan, unitate zentrala mantendu egin du, bai estrakziozko laburpenean bai abstrakziozkoan. Horrez gain, erabilitako nukleo-unitateek kausa eta helburua erlazioak mantentzen dituzte, eta horiek indartzeko ideiak, xehetasunak ematekoak, koherenteak izan dire. Ikaslea3-k jatorrizko testua asko laburtu du, baina testua guztiz ulergarria, konexioduna eta koherentea da. Urre-patroian mantendutako diskurtso-unitate desberdinak erabili

ditu, baina antzeko helburua betetzen dutenak izan dira, hau da, unitate-zentralarekiko kausazko erlazioak mantendu ditu, baita helburuak ere.

Azkenik, txartxat hartu dugun ikaslea<sup>24</sup>-ren laburpen testuak aurrekoek baino nukleo-unitate gehiago mantendu ditu, eta hala ere, ezin esan laburpen ona denik. Horren arrazoia honakoa da: aukeratutako nukleo-unitateekiko erlazio koherentzia mantentzen duten satelite-unitateak ezabatu egin ditu, eta horien ordean, nukleo horrekin bat ez datozenak mantendu. Gainera, konexiorik gabeko esaldiak bata bestearen jarraian idatzi baino ez du egin, ulergarritasuna erabat oztopatuta.

# 4.KAPITULUA

---

## Ondorioak

---

### 4.1. Ondorio aipagarrienak:

Corpusaren deskribapena egin ondoren, eta datu esanguratsuak atera ondoren, honako ondorio hauek atera ahal izan ditugu:

Abstrakziozko laburpen automatikoak egiteko tresna oso erabilgarria izan da, ikasleak mota horretako programak erabiltzen ohituta ez dauden arren, gustura egin dute lan. Hala ere, argi dago mota horretako tresnak erabiltzen trebakuntza falta zaiela, egindako testu laburpenek erakutsi duten moduan.

Laburpenen kalitatea, oro har, oso eskasa izan da: batetik, estrakziozko laburpena egitean, askok diskurtso-unitate gutxiegi ezabatu dute, eta editatzerakoan, zailagoa egin zaie diskurtso egokiak aukeratzea. Horren ondorioz, koherentziazko erlazioak ere desegokiak izan dira, eta testuaren ulergarritasuna eskasa. Bestetik, beste ikasle batzuek, testua hainbeste laburtu beharraren poderioz, kohesiorik gabeko testuak sortu dituzte, eta ideien hurrenkeran inolako logikarik ez zutenak. Horren arrazoietako bat, jatorrizko testua bera izan daiteke; erraza eta etaparako egokia izan arren, luzeegia izan baita.

Argi dago honelako corpus bat sortzeko hautagai egokiak ez direla izan, etorkizuneko antzeko ikerketa lan batean erabilitako corpus-en egileak, estrakziozko laburpen automatikoetan trebatuagoak izan beharko dira.

Bestetik, datuak biltzeari dagokionez, laguntza teknikoa handia izan den arren, deskribapenerako jasotako datu ugari ez zetozen bat ez jatorrizko testuarekin ez ikasleen laburpen testuekin. Horrek datu bilketa eskuz egin beharra eragin du, beraz, alderdi horretatik, teknologia berriak ez dira pentsatu bezain lagungarriak izan.



#### **4.2. Mugak eta etorkizunerako proposamenak.**

Ikerketa lan honetako corpus-a hain txikia izanik, baliteke emaitzak ondorioak ateratzeko bestekoak ez izatea. Erabilitako jatorrizko testua luzeegia izatea eta argudio testua izatea ikasleentzat oztopoa izan dela ere esan dezakegu; batetik, jatorrizko testuak 1319 hitz izanik, oso zail egin zaie 5-15 lerro bitarteko laburpen testua sortzea (zein EDU den garrantzitsua eta zein ez aukeratzean galdu samar ibili dira, argudioak, adibideak... gehiegitxo izan direlako); eta, bestetik, argudio testuak sortzen ikasten aritu diren arren, orain arte laburtu izan dituzten testuak azalpenezkoak izan direlako.

Beraz, deskribapenetik ateratako datuak esanguratsuagoak izate aldera, corpus-a handiagoa izatea komeniko litzateke. Bestetik, horrelako programa bat erabilia ikerlan baterako corpus-a sortzeko, lehenengoz, parte-hartzaileak askoz ere trebatuago egon beharko lukete laburpen automatikoen elaborazioan.

---

## Bibliografia

---

- Atutxa, U. ; Irukieta, M. *Abstrakziozko laburpen-testuak ebaluatzeko metodoa. Lehen Hezkuntzan: testu-luzera, koherentzia-erlazioak, gai nagusia*. Tatak, 29 (1) 2017. 53-80 or.
- Camacho, A.; *Irakurriz ikasi*. UEU, 2. argitalpena.
- HEZIBERRI; 236/2015, *abenduaren 22koa curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*.
- Irukieta, M.; Aranzabe, M.J.; Diaz de Ilarraza, A.; Gonzalez, I.; Lersundi, M.; Lopez de la Calle, O. 2013. The RST Basque TreeBank: an online search interface to check rhetorical relations. Paper presented at the 4th Workshop "RST and Discourse Studies", Brasil, October 21-23.
- Irukieta, M.; Díaz de Ilarraza, A.; Lersundi, M.; *Koherentziazko erlazioak: marko teorikoa eta corpusaren deskribapena*. IXA taldea, UPV/EHU
- Molina, A. (2013). Compresión automática de frases: un estudio hacia la generación de resúmenes en español. *Inteligencia artificial: Revista Iberoamericana de Inteligencia Artificial* 16.51 (2013): 41-61
- Sanz, A. 2005. *Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu: Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta DBHko 1. zikloa*. Nafarroako Gobernua.
- [http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/ataza?iframe\\_idcourse=5985&articleId=1821010&groupId=10138#http://www.ikasbil.eus/c/iframe/proxy?p\\_l\\_id=66820&p\\_p\\_id=48\\_INSTANCE\\_zV5D&iframe\\_idcourse=5985](http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/ataza?iframe_idcourse=5985&articleId=1821010&groupId=10138#http://www.ikasbil.eus/c/iframe/proxy?p_l_id=66820&p_p_id=48_INSTANCE_zV5D&iframe_idcourse=5985))
- <http://ixa2.si.ehu.es/compress-eus/index.php>

---

# Eranskinak

---

## IKASLEEN ESTRAKZIOZKO LABURPENAK:

Izena: ikaslea21

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak.

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu, Zenbaki eskandalagarri hauek saihets daitezke, ordea :

Itxura " perfektua " ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen, saltokiek arbuatuta. eta ondorioz, asko da usteltzen uzten den janaria, osasuntsua eta gozoa izan arren.

Hainbat ikerketaren arabera, produzitutakoaren herena botatzen du Europako manufaktura eta prozesamendu industriak, Etxean ere janari asko baztertzen omen dugu kontsumitzaileok,

EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara,

**SUPERMERKATU ETA JANGELETAKO ATZEALDEAK** Saltoki txiki nahiz handietan janari andana galtzen da alferrik. baina supermerkatuan saldu ez dena hornitzaileari itzuli ahal izateak utzikeria errazten du hainbatetan. Saltoki eta jatetxeei merke ateratzen zaie jana botatzea, eta behin kopuru jakin bat salduta, errentagarritasuna ziurtatuta dute.

**IRAUNGITZE ETIKETA NAHASGARRIAK** Jana alferrik galtzearen arrazoi handietako bat produktuen iraungitze datarekin dagoen nahasmena da. Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak ".

**EKINTZAILEAK ETA ELIKAGAIEN BANKUAK** Soberakinik ez sortzea da funtsa, baina behin sortutakoan, zer egin janari horrekin? Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzen den jendea ugaritu egin da : Sarri, behar dutenen artean banatzen dute lortutakoa ;

Boluntarioen lanari esker, Euskal Herriko Elikagaien Bankuek milaka kilo janari eskuratzen dituzte Recondo, Puleva, Beti Ona fruituak, Ortiz kontserbak, San Marcial harategiak, Urdaki, Eroski, Carrefour, Alcampo eta abar luze baten eskutik. Bankuek beraien jasotzen dute jana eta ondoren, gobernuz kanpoko erakundeak eta antzeko elkarteak arduratzen dira Bankuetatik elikagaiak hartu eta behar dutenen artean banatzeaz.

**GUK EGIN DEZAKEGUNA** Jatetxean, platerak aurrez prestatu ordez, hobe bezeroek eskatu ahala kozinatzea, eta soberakinak ontzi batean eramateko lotsarik ez genuke

izan behar. Araudia zorroztu daiteke : adibidez, Norvegia egiten den gisan, botatzen dutena publiko egitera behartu daitezke enpresak,

Guk geuk, noski, ez da gutxi egin dezakeguna, ekintza errazak izanik. Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea gomendatzen digu Tristraam Stuartek ; kopuruak ondo neurtu eta soberakinak aprobetxatzea, berrerabiltzea, izoztea eta birziklatzea ohitura bihurtu dezakegu eta egungo kontsumo ereduak norberak alda dezake, bitartekariarik gabe zuzenean inguruko ekoizleei erosituz.

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea17

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak.

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu,edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara.

Itxura " perfektua " ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen, saltokiek arbuiauta.

SUPERMERKATU ETA JANGELETAKO ATZEALDEAK Saltoki txiki nahiz handietan janari andana galtzen da alferrik.

IRAUNGITZE ETIKETA NAHASGARRIAK Jana alferrik galtzearen arrazoi handietako bat produktuen iraungitze datarekin dagoen nahasmena da. esan nahi du sentsorialki ez dela agian bere onenean egongo. Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak " .

GUK EGIN DEZAKEGUNA Jatetxean, platerak aurrez prestatu ordez, Supermerkatuek aukera eman diezaiekete jaki " itsusiei " ,

Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea gomendatzen digu Tristraam Stuartek ;

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea15

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak.

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu,edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara. Zenbaki eskandalagarri hauek saihets daitezke, ordea : legedia zorroztez, jakien iraupena luzatzeko neurriak hartuz, hornitzaile eta saltokien jardunean gardentasuna eskatuz... eta kontsumitzaileen ohitura txarrak alboratuz.

Itxura " perfektua " ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen,saltokiek arbuiatuta.Asko dira horrelako adibideak,eta ondorioz, asko da usteltzen uzten den janaria, osasuntsua eta gozoa izan arren.

Horren erakusgarri, hona datu gutxi batzuk, arazoaren dimentsioaz jabetzeko.Hainbat ikerketaren arabera, produzitutakoaren herena botatzen du Europako manufaktura eta prozesamendu industriak,eta arrantzatzen den guztitik erdia baino zertxobait gehiago baino ez dugu jatenEtxean ere janari asko baztertzen omen dugu kontsumitzaileok,

Gaiari duela gutxi heldu dio Europar Batasunak,

Lehen Munduko soberakinekin gose diren 1.000 milioi persona elikatuko genituzkeen arren, azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea,baizik soberakinik ez sortzea.

Gainera, barietatea eta berriena eduki beharrak ere sortzen ditu soberakinak :Saltoki eta jatetxeei merke ateratzen zaie jana botatzea, hornitzaileengandik gutxi ordainduta lortzen dituztelako produktuak,eta behin kopuru jakin bat salduta,errentagarritasuna ziurtatuta dute.

Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak " .

garrantzitsua da janaria ondo kontserbatzea eta hotz katea ez haustea.

Legedia zorrozteko bide horretan, neurriak hartzeko asmoa agertu du Europar Batasunak,eta 2025erako elikadura hondakinak erdira jaistea da Nazio Batuen xedea.

Osterantzean, planetan bera galduko dugu alferrik.

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea12

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak.

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu,edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara.

Itxura " perfektua " ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen,saltokiek arbuiatuta.

Hainbat ikerketaren arabera, produzitutakoaren herena botatzen du Europako manufaktura eta prozesamendu industriak,Europako saltoki handi batek 500-600 tona jaki botatzen ditu urtero,

EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara, hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo produktu jangarri eta osasuntsu mesprextatzen ditu ( kilo erdia egunero ).

Gainera, barietatea eta berriena eduki beharrak ere sortzen ditu soberakinak :

Jakien etiketa irakurtzean,ezberdindu egin behar ditugu,batetik, " Tapakian adierazitako data baino lehen kontsumitu " delakoa - alegia, gaztelaniaz irakurri ohi

dugun " Consumir preferentemente antes de " -, eta, bestetik, " Iraungitze data ".Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak ".

Bankuek beraiek jasotzen dute janaeta ondoren, gobernuz kanpoko erakundeak eta antzeko elkarteak arduratzen dira Bankuetatik elikagaiak hartu eta behar dutenen artean banatzeaz.

GUK EGIN DEZAKEGUNA Jatetxean, platerak aurrez prestatu ordez, ahal den neurrian, hobe bezeroek eskatu ahala kozinatzea, erabili gabeko lehengaiak gordetzeko ;lekua aurrez enkargatzea ere komeni da, kalkuluak fintzeko ;eta soberakinak ontzi batean eramateko lotsarik ez genuke izan behar. Supermerkatuek aukera eman diezaiekete jaki " itsusiei ", eta aurreikuspen onak egiteak - gehien / gutxien kontsumitzen diren produktuetan arreta jarriz - botatzen dutena publiko egitera behartu daitezke enpresak, jendearen aurrean irudi garbia eman nahian eraginkorrago joka dezaten ; hondakindegietara jana eramatea debeka daiteke ; jan hondakinei tasa bat ezarri ; edota praktika onak saritu.

Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea gomendatzen digu Tristraam Stuartek ; kopuruak ondo neurtu eta soberakinak aprobetxatzea, berrerrabiltzea, izoztea eta birziklatzea ohitura bihurtu dezakegu

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea4

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak.

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu,

Ez dago zuloz duen patatarik supermerkatuetan, ez dago fruitu eta barazki " itsusirik ", sagar handi eta koloretsuak baizik, tamaina bera duten tomate biribilak, uraza edo letxuga berde-berdeak. Europar Batasuneko arauen arabera, esaterako, 50 milimetroko diametroa edo 70 gramoko pisua ez duen sagarrik ezin da saldu, ezta 62 gramo baino gutxiago duen kiwirik. bildutako bananen % 20-40 artean botatzen da urtero Latinoamerikan eta Afrikan ( 20 milioi tona inguru ). europar arrantzaleek harrapaturiko arrainen % 40-60 alboratzen dute. Herrialde anglosaxoietan, aldi behin etxeko hozkailua hustu eta dagoen guztia botatzeko ohitura dago,

Hainbat ikerketaren arabera, produktutakoaren herena botatzen du Europako manufaktura eta prozesamendu industriak, eta arrantzatzen den guztitik erdia baino zertxobait gehiago baino ez dugu jaten Europako saltoki handi batek 500-600 tona jaki botatzen ditu urtero, eta eskoletan zerbitzatzen den jakien % 24-35ak zakarrontzian amaitzen du. herritar europarrak uste du % 4 inguru botatzen duela, baina egiaz ia-ia % 20 da.

EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara, hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo produktu jangarri eta osasuntsu mespretxatzen ditu ( kilo erdia egunero ).

azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea, baizik soberakinik ez sortzea.

SUPERMERTATU ETA JANGELETAKO ATZEALDEAK Saltoki txiki nahiz handietan janari andana galtzen da alferrik.eskatutako produktuen kopurua ondo kalkulatu behar da,baina supermerkatuan saldu ez dena hornitzaileari itzuli ahal izateak utzikeria errazten du hainbatetan.Saltoki eta jatetxeei merke ateratzen zaie jana botatzea, hornitzaileengandik gutxi ordainduta lortzen dituztelako produktuak,Dena den, neurriak hartzen hasiak direla ere azpimarratu du Eroskiko langileak :

IRAUNGITZE ETIKETA NAHASGARRIAK Jana alferrik galtzearen arrazoi handietako bat produktuen iraungitze dataekin dagoen nahasmena da.Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak " .

Ardura gehien itsaskiarekin izan behar dela ohartarazi du Josune Cantalejok, baita haragi eta arrain freskoarekin ere,Aldiz, kontserbek asko irauten dute :

EKINTZAILEAK ETA ELIKAGAIEN BANKUAK Soberakinik ez sortzea da funtsa, baina behin sortutakoan,zer egin janari horrekin?Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzen den jendea ugaritu egin da :ez dira eskaleak, ekintzaileak baizik, edo besterik gabe janaria usteltzen uzteko prest ez daudenak.

Boluntarioen lanari esker, Euskal Herriko Elikagaien Bankuek milaka kilo janari eskuratzen dituzte Recondo, Puleva, Beti Ona fruituak, Ortiz kontserbak, San Marcial harategiak, Urdaki, Eroski, Carrefour, Alcampo eta abar luze baten eskutik.

GUK EGIN DEZAKEGUNA Jatetxean, platerak aurrez prestatu ordez, hobe bezeroek eskatu ahala kozinatzea,lekua aurrez enkargatzea ere komeni da,eta soberakinak ontzi batean eramateko lotsarik ez genuke izan behar.Supermerkatuek aukera eman diezaiekete jaki " itsusiei ",eta aurreikuspen onak egiteak - gehien / gutxien kontsumitzen diren produktuetan arreta jarriz -Araudia zorrotzu daiteke : adibidez, Norvegian egiten den gisan, botatzen dutena publiko egitera behartu daitezke enpresak,Legedia zorrotzeko bide horretan, neurriak hartzeko asmoa agertu du Europar Batasunak,eta 2025erako elikadura hondakinak erdira jaistea da Nazio Batuen xedea.

Guk geuk, noski, ez da gutxi egin dezakeguna, ekintza errazak izanik.Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea gomendatzen digu Tristraam Stuartek ; kopuruak ondo neurtu eta soberakinak aprobetxatzea, berrerabiltzea, izoztea eta birziklatzea ohitura bihurtu dezakegu - soberakinak aprobetxatzeko jaio ziren kaneloiak, baratxuri-zopa, pain perdu postrea... - ; eta egungo kontsumo eredia norberak alda dezake,

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea22

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu,edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara.

Legediak berak ez du asko laguntzen :Europar Batasuneko arauen arabera, esaterako, 50 milimetroko diametroa edo 70 gramoko pisua ez duen sagarrik ezin da saldu, ezta

62 gramo baino gutxiago duen kiwirik. Asko dira horrelako adibideak, eta ondorioz, asko da usteltzen uzten den janaria, osasuntsua eta gozoa izan arren.

Sarreran aipatu bezala, kontsumitzen dugunaren ia erdia zaborretara doa Europan, eta ahoratzen ditugun animaliak elikatzeko erabiltzen den jana kontuan hartuz gero, bi heren doa konainerretara. Etxean ere janari asko baztertzen omen dugu kontsumitzaileok, nahiz eta kontziente ez izan :

EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara,

Lehen Munduko soberakinekin gose diren 1.000 milioi persona elikatuko genituzkeen arren, azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea, baizik soberakinik ez sortzea.

eskatutako produktuen kopurua ondo kalkulatu behar da, baina supermerkatuan saldu ez dena hornitzaileari itzuli ahal izateak utzikeria errazten du hainbatetan.

Sarri lehenengo oharra baino ez du eramaten etiketak, eta data horrek ez du iraugitze data adierazten, baizik eta fabrikatzaileak iritzi diola data horretatik aurrera produktuak ez dituela beharbada hasierako ezaugarri guztiak bere horretan mantenduko.

Hozkailua zenbatetan irekitzen dugun eta barnean zenbat janari dugun ere kontuan hartzea komeni da, tenperatura funtsezkoa baita, produktua ez hondatzeko ".

Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzeko den jendea ugaritu egin da : ez dira eskaleak, ekintzaileak baizik, edo besterik gabe janaria usteltzen uzteko prest ez daudenak.

GUK EGIN DEZAKEGUNA Jatetxean, platerak aurrez prestatu ordez, ahal den neurrian, hobe bezeroek eskatu ahala kozinatzea, erabili gabeko lehengaiak gordetzeko ; lekua aurrez enkargatzea ere komeni da, kalkuluak fintzeko ; eta soberakinak ontzi batean eramateko lotsarik ez genuke izan behar.

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea3

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Saihets ditzakegun zifra beldurgarriak.

edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara.

Itxura " perfektua " ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen, eta ondorioz, asko da usteltzen uzten den janaria, osasuntsua eta gozoa izan arren.

bi heren doa konainerretara. Etxean ere janari asko baztertzen omen dugu kontsumitzaileok, baina egiaz ia-ia % 20 da.

EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara, hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo produktu jangarri eta osasuntsu mespretxatzen ditu ( kilo erdia egunero ).

Lehen Munduko soberakinekin gose diren 1.000 milioi persona elikatuko genituzkeen arren,



Gainera, barietatea eta berriena eduki beharrak ere sortzen ditu soberakinak :

Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzen den jendea ugaritu egin da :

Boluntarioen lanari esker, Euskal Herriko Elikagaien Bankuek milaka kilo janari eskuratzen dituzte Recondo, Puleva, Beti Ona fruituak, Ortiz kontserbak, San Marcial harategiak, Urdaki, Eroski, Carrefour, Alcampo eta abar luze baten eskutik. Bankuek beraiek jasotzen dute jana

eta 2025erako elikadura hondakinak erdira jaitea da Nazio Batuen xedea.

Guk geuk, noski, ez da gutxi egin dezakeguna, ekintza errazak izanik.

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea6

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu,edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara.

Itxura " perfektua " ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen,

Hainbat ikerketaren arabera, produtztutakoaren herena botatzen du Europako manufaktura eta prozesamendu industriak,

EBn, urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara,

Hasteko, hornitzaileekin duten harremanak du eragina :eskatutako produktuen kopurua ondo kalkulatu behar da,baina supermerkatuan saldu ez dena hornitzaileari itzuli ahal izateak utzikeria errazten du hainbatetan.

Jakien etiketa irakurtzean,ezberdindu egin behar ditugu,batetik, " Tapakian adierazitako data baino lehen kontsumitu " delakoa - alegia, gaztelaniaz irakurri ohi dugun " Consumir preferentemente antes de " -, eta, bestetik, " Iraungitze data ".Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak ".

" Inportantea da produktuen etiketak irakurtzen jakitea,eta etiketak informazio osatua eta egokia duela ziurtatzea. temperatura funtsezkoa baita,

Saltokietako kontainerretatik arrantzatutakoaz elikatzen urteak eman ditu Tristram Stuartek ; lehen aipaturiko liburuan kontatzen du esperientzia,eta harrigarria da zein otordu aberatsak egin daitezkeen baztertu den janaria berreskuratuz.ez dira eskaleak, ekintzaileak baizik,

Bankuek beraiek jasotzen dute janaeta ondoren, gobernuz kanpoko erakundeak eta antzeko elkarteak arduratzen dira Bankuetatik elikagaiak hartu eta behar dutenen artean banatzeaz.

MIKEL GARCIA [www.argia.com](http://www.argia.com) ( egokitua ).

Izena: ikaslea18

Dokumentua: Saihets-di

Laburpena:

Europar eta AEBn, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu,edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara.

Europar Batasuneko arauen arabera, esaterako, 50 milimetroko diametroa edo 70 gramoko pisua ez duen sagarrak ezin da saldu, ezta 62 gramo baino gutxiago duen kiwirik.bildutako bananen % 20-40 artean botatzen da urtero Latinoamerikan eta Afrikan ( 20 milioi tona inguru ).Herrialde anglosaxoietan, aldi behin etxeko hozkailua hustu eta dagoen guztia botatzeko ohitura zabaldua dago, " garbitzeko ".

Sarreran aipatu bezala, kontsumitzen dugunaren ia erdia zaborretara doa Europar,eta ahoratzen ditugun animaliak elikatzeko erabiltzen den jana kontuan hartuz gero,bi heren doa konainerretara.Europako saltoki handi batek 500-600 tona jaki botatzen ditu urtero,eta eskoletan zerbitzatzen den jakien % 24-35ak zakarontzian amaitzen du.

hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo produktu jangarri eta osasuntsu mespretxatzen ditu ( kilo erdia egunero ).

SUPERMERKATU ETA JANGELETAKO ATZEALDEAK Saltoki txiki nahiz handietan janari andana galtzen da alferrik.

" Inportantea da produktuen etiketak irakurtzen jakitea,eta etiketak informazio osatua eta egokia duela ziurtatzea.

Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzen den jendea ugaritu egin da :Batuetan, ordea, ez da lan samurra :supermerkatu handietako kontainerrak gordeta egoten dira zenbaitetan,edo paketeak irekita, puskatuta eta janari dena nahasita.

